

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Obren lizitazioa, Pobesen hirugarren adinekoentzako egoitza egiteko proiektua, II fasea, eta ustiatzearen errentamendua

Erriberagoitiko Udalak, 2017ko apirilaren 6ko ohiko osoko bilkuran, onartu egin zuen baldintza ekonomiko-administratiboen agiria Pobesen hirugarren adinekoentzako egoitza egiteko proiektuaren obrak esleitzeko (II fasea), eta ustiatzearen errentamendua; jendaurrean jartzen da 8 egun naturalez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean, eta bat etorritz toki araubideko gaiak arautzen dituen testu bateratuaren 122.2 artikuluan xedatutakoarekin, lehiaketa publikoa deitzen da, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den baldintza agiri horren aurka erreklamaziorik aurkezten bada.

Lehiaketa

1. Erakunde esleitzaila: Erriberagoitiko Udala
 2. Kontratuaren xedea: Pobesen hirugarren adinekoen egoitza egiteko proiektua, II fasea, eta ustiatzearen errentamendua
 3. Izapidetzea eta prozedura. Izapidetzea: arrunta; prozedura; irekia; esleitzeko era: lehiaketa.
 4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 785.123,96 euro gehi BEZa (164.876,03 euro).
 5. Bermeak: behin-behinekoa, 29.008,00 euro. Behin betikoa: obraren, ekipamenduaren eta instalazioen balio kalkulatuaren ehuneko 5.
 6. Esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak, baldintzen agiriaren arabera:
 - a) Automatikoak edo formula edo kalkulu aritmetiko bidez ebalua daitezkeenak (handienetik txikienera), guztira 12 punturen gainean:
 - Urteko errentan ordaindu beharrekoa areagotzea: 1 puntu emango da urteko errenta 10.000 euroan areagotzen den bakoitzeko: 5 puntu, gehienez ere.
 - Egoitza zerbitzuan jartzeko aurreikusten den epea: 4 puntu, gehienez ere; hots, plegu honen bosgarren klausulan xedatutako 3 hilabeteko gehienezko epeetako bakoitza bi astebetetz laburtzen den bakoitzeko 1 puntu.
 - ISO, EFQM, MGA edo antzeko kudeaketaren kalitate sistemetan lortutako egiaztagiriak, diplomak eta ziurtagiriak. 1 puntu halako bakoitzarengatik eta, gehienez ere, 3 puntu.
 - b). Objektiboki ebaluatu ezin direnak, balioespen subjektiboa eskatzen baitute, gehienez 88 punturen gainean:
 - b.1. "Udal eraikina egitea eta ekipatzea", irizpide hau balioesteko beharrezko agiri guztiak jasoz. Gehienez, 20 puntu.
- Txosten teknikoa, obra plana. Obra planaren azalpena eta kronograma eta egikaritzeko proposamena. Egin beharreko jarduera dela-eta egingo denari buruz den jakituria berezitua balioetsiko da. Gehienez, 8 puntu.

Zaintza lanen programa loteslea, urtez urte harik eta eskainitako epea bukatu arte, emakida aurreko hiru urteetan egin beharreko lanen proposamen eta konpromiso zehatza eta udalari ondasuna itzultzea. Xehatuta jarduerak (azalpena) eta zenbatekoak. Gehienez, 8 puntu.

Pleguetan eskatu ez diren hobekuntzak. Nola diseinuan hala obran bertan, instalazioetan eta altzarietan. Gehienez, 4 puntu.

b.2. "Jardueraren garapen proposamena"; irizpide hau balioesteko beharrezko agiri guztiak jasoz. Gehienez, 64 puntu.

Egoitza dela eta: gehienez, 36 puntu.

Pertsona arreta xede den gaien garapen programa, lotura fisiko eta kimikoetatik aske eta pertsona zaintzeko jardunbide egokiak. Gehienez, 18 puntu.

Programaren planteamendua eta azalpena balioetsiko da (8 puntu).

Kontratu gai den egoitzan bertan hura jartzeko azalpena, zehetasunak eta arrazoia (8 puntu).

Haren kudeaketaren bideragarritasuna (2 puntu).

Beste metodologia batzuk, askeak edo osagarriak, espezialitateen arabekoak: Aurkaratzea, eraginkortasunaren egiaztatzea, berrikuntza...: gehienez, 8 puntu.

Atxikita izan beharreko giza baliabideen egokitasun maila: gehienez, 5 puntu.

Gutxienezko baliabideetatik gora aldi batez edo beti atxikita diren bitarteko materialak. Gehienez, 5 puntu.

Eguneko zentroa dela eta: gehienez, 18 puntu.

Eguneko zentroan aplikatu beharreko programa, garatu beharreko jarduerak barne. Gehienez, 10 puntu.

Atxikita izan beharreko giza baliabideen egokitasun maila: gehienez, 4 puntu.

Gutxienezko baliabideetatik gora aldi batez edo beti atxikita diren bitarteko materialak. Gehienez, 4 puntu.

Erabilera bi horiei eta obrei aldi berean eutsi beharra dela eta: gehienez, 10 puntu.

Eguneko zentro eta egoitza izateko eraikinaren faseak egiteko maila batean eta bestean ezberdina denez gero eta obrak bukatzen diren bitartean jarduera batari edo besteari edo bieki ekitea eta eustea, zati batean bada ere, aukeran izan daitekeenez gero, balioetsi egingo da jarduera biak koordinatzeko eta aldi berean egiteko proposamen zehatza (zati batean zerbitzua eskaini eta bestean, bien bitartean, obrak egin).

b.3. "Negozio planaren azalpen zehatza eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzen duen beste zernahi zehaztapen eta jarduera eremuaren ezagutza" Gehienez, 10 puntu.

b.4. "Administrazio izapideen kronograma eta definizioa" jarduera hasi eta garatze aldera, baimena lortzeko prozedurei buruzkoa. Gehienez, 4 puntu.

Atal honetan gutxienez lortu beharreko puntuak, izaera baztertzailerak du: b1, b2, b3 eta b4 ataletan lortutako puntuen batura, gutxienez, 44 puntu izango da. Halaber, "b.2. Jardueraren garapen proposamena" atalean, gutxienez, 32 puntu lortu beharko dira eta "b.3. Negozio planaren azalpen zehatza eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzen duen beste zernahi zehaztapen eta jarduera eremuaren ezagutza" atalean, gutxienez, 5. Ezinbestekoa izango da puntu horiek lortzea kontratazio prozesuan aurrera egiteko.

Bestela izanez gero, baztertu egingo da eskaintza kontratazio prozesutik, eta ez da ez irekiko ez balioetsiko 3 gutun-azaleko edukia.

7. Agiriak eta argibideak eskuratzea: Erriberagoitiko udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, eta haren erriberagoitia.com web orriko kontratatzailearen profilean.

8. Eskaintzak aurkezteak: Erriberagoitiko udal bulegoetan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera (larunbatetan ez), 09:00etatik 14:00etara, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. Obra gauzatzeko sailkapena:

1. Obra gauzatzeko. Eskatutako sailkapena:

Eraikitzeak, C taldea, 02 azpitaldea, C kategoria

Eraikitzeak, B taldea, 04 azpitaldea, C kategoria

Eraikitzeak, C taldea, 06 azpitaldea, A kategoria

Eraikitzeak, C taldea, 09 azpitaldea, A kategoria

Sailkapen hori eskaintzaren sinatzaileak edo obra egiteko konpromisoa hartzen duen azpi-kontratatista eduki behar du; kasu horretan, identifikatu egin behar da eskaintzan eta konpromiso eskutitza erantsi. Azpi-kontratatista aldatzea onartuko da, baldin eta, gutxienez, aipatutako sailkapena badu.

2. Zaharren egoitza jarduera garatzeko, hiru betekizun hauek:

2.1. Azken hiru urteetan egindako antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zeinek lan edo zerbitzu horien zenbatekoa, datak eta hartzaileak, publikoak zein pribatuak, jasoko baititu. Organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada; aldiz, hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiri edo aitorten baten bidez. Azken hiru urteetan, gutxienez, 26 erabiltzaile (bakar batean edo denetan batera) dituen zahar egoitza batean edo batzuetan izandako gutxienerako eskarmentua eskatuko da. Eskarmentu hori zuzeneko kudeaketa bidez lortutakoa edo lankidetzaren hitzarmenen bidez hirugarren batzuentzako lanetan lortutakoa izango da.

2.2. Kontratu gauzatzeko ardurak daukaten langileen titulazio akademikoak eta profesiona-lak, 30 erabiltzaileko hirugarren adineko egoitza bat kudeatzeko eta ustiatzeko egokiak.

2.3. Enpresak, azken hiru urteetan zehar, batez beste izan dituen langileei buruzko adierazpena. Adierazpen horrekin batera bertan adierazitakoa egia dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

Sailkapen hori eskaintzaren sinatzaileak edo obra egiteko konpromisoa hartzen duen azpi-kontratatista eduki behar du; kasu horretan, identifikatu egin behar da eskaintzan.

Erriberagoitia, 2017ko apirilaren 7a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ